



HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUAREKIN BAT DATORREN DOKUMENTUA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ALDI BATERAKO IRAKASLEEN HAUTAKETA ETA KUDEAKETA ARAUTZEN DUENA.

2022ko uztailaren 15ean EHAAn argitaratu zen 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Bertan, testu artikulatu oso bakar batean sartzen eta integratzen dira xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea ordezkatzeko du.

Zehazki 11 artikuluan Aldez aurretiko kontsulta herritarrei hau zehazten da:

1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarleen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioari langile zein herritarra izan.
2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.
3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: arau onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.
4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.

Hezkuntza sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen duen hezkuntza sailburuaren aginduaren proiektua prestatzen hasteko asmoa du.





Aipatutako 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenarekin bat etorritik, eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte har dezaten bultzatze aldera, arau-proiektua egin aurretik, jendaurreko kontsultarako aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web atariaren bidez, herritarren eta etorkizuneko arauaren eragina jasan dezaketen erakunde adierazgarrien iritzia jaso ahal izateko, honako gai hauei buruz:

1.- Ekimenaren bidez arautu nahi diren alderdiak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 17.1 artikulua betez.

Agindu horrek hainbat aldaketa izan ditu, honako xedapen hauen bidez:

- 2013ko apirilaren 18ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua aldatzen duena.

- 2014ko apirilaren 16ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

- Agindua, 2015eko ekainaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua hirugarren aldiz aldatzen duena.

- Agindua, 2017ko apirilaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen agindua.

- Agindua, 2019ko otsailaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen agindua.

- Agindua, 2023ko azaroaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez seigarren aldiz aldatzen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duena.



Gaur egun, beharrezkotzat jo da testu berri bat egitea, aurreko aginduari egindako aldaketak jasoko dituen, bai eta aplikazioan izandako esperientziak gomendatzen duen gai berriak arautzea ere.

Halaber, lan-poltsen kudeaketa eraginkorra izateko, araudi berri bat egitea bultzatu da, aldi baterako langile-beharrak estaltzeko hautagaien zerrendak arautzeko.

Araudi berri honen helburuetako bat hautagaiei protagonismo handiagoa ematea da, aukerak gauzatzeko orduan. Horrela, lan egin nahi duten ala ez erabakiko dute, eta, ondorioz, zehazten dituzten eskaintzak jasoko dituzte, behar duten unean. Horrela, edozein unetan baldintzak aldatzeko ahalmena izango dute, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari jakinarazi behar izan gabe.

Sartu nahi diren berrikuntzei dagokienez, izendapenaren hobekuntza aipatu da. Horren bidez, zerbitzuak ematen diren kidegokoak ez diren lan-poltsetatik egin daiteke eskaintza.

Era berean, birbaremazioaren, ordezkapen-aukeren eta lan-egoeren ataletan aldaketak egitea proposatzen da, baliabideen kudeaketa eraginkorrari eusteko eta, aldi berean, ordezeko langileen lan-baldintzak hobetzeko, haien lan-bizitza eta familia-inguruabarrak eta inguruabar pertsonalak hobeto uztartzea ahalbidetuz.

Beste aldaketa batzuk ere ezarri dira: merezimenduen baremoari buruzko I. eranskinari buruzkoak, barematu beharreko alderdiak aldatu eta aurkeztu beharreko dokumentazioa argitu eta zehazten duena; eta III. eranskinean 2012tik hona egin diren aldaketa ugariak sartu nahi dira, argi eta garbi sartzeko zerrendetan sartzeko titulazio berriak, eta lehendik daudenen antzeko beste batzuk gehitu nahi dira, jaso beharrekoak.

Azkenik, prozedura informatikoetan sartu beharreko berrikuntzak nabarmendu behar dira, ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasle-beharrak estaltzeko euskarri baitira. Berrikuntza horiek ezartzeak kudeaketa arinagoa eta eraginkorragoa erraztuko du, gardentasun- eta publikitate-berme osoarekin. Helburu berarekin, komunikazio elektronikoa ezartzen da hautagaien, ordezkartzaren eta administrazioaren arteko komunikaziorako kanal nagusi gisa, eta prozesuen jarraipena errazten da.

2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra.

Hainbat arrazoi direla medio, agindu finkatu berri bat sortu behar dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrendaren kudeaketa arautzeko, bai eta prozesua sinplifikatzeko ere.

a) Prozesua bateratzea

Lehenik eta behin, 2012az geroztik aldatzen joan den araudi guztia arau bateratu bakar batean bateratzeko beharra dago.

Horregatik guztiatik, agindu bat egitea proposatzen da, onartutako aldaketak jasoko dituen eta, gainera, hobeto kudeatzeko behar diren berrikuntzak jasoko dituen.

b) Prozesua sinplifikatzea



Aurrekarietan azaldu den bezala, prozesua sinplifikatu nahi da, bai kudeaketari dagokionez, non langileek zeregin aktiboagoa duten, bai prozedura informatikoei dagokienez.

3.- Arauaren helburuak.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzea.

Agindu honen hartzailak dira Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan aldi baterako dauden irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda osatzen dutenak eta zerrenda horretan parte hartu nahi dutenak.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko arau-erregulazio horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, bai eta erakunde, entitate edo elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarkitaulan argitaratuko da, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezarriko da eragina izan dezaketen erakundeek, herritarrek eta haien erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan egiten dena, aurreikusitako legeeskemari jarraituz. Horrez gain, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek arautzen duten hasiera fasearen barruan.

381/2024 Dekretuak, azaroaren 19koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehena. - Aurretiazko kontsulta publikoko izapidea ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoen bidez lagundutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen xedapen orokor baten proiektua.

Bigarrena. - Arauaren eragina jasaten duten herritarrek eta erakundeek, hala baderitzote, Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko aukera izango dute hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria- Gasteizen, sinaduran zehazten den datan

María Begoña Pedrosa Lobato
HEZKUNTZA SAILBURUA